

ALKATEAREN ERABAKIA

GAIA: Dirulaguntzak emateko oinarriak onartu eta deialdia egiteko proposamena

ESPEDIENTEA: 2026MDID0001

INTERESDUNA: Eskoriatzako Udala

Udal honetan indarrean dagoen Dirulaguntzen Plan Estrategikoak, bestek beste, ondorengo dirulaguntza lerroa jasotzen du:

- Programa: ESTABLEZIMENDU KOMERTZIALEN KOPURUA MANTENTZEKO EDO HANDITZEKO DIRULAGUNTZAK.
- Onuradunak:
 - o Lokal huts batean merkataritza edo zerbitzuetako proiektu berria sustatzeko asmoa dutenak.
 - o Edo martxan dagoen negozioaren bat eskualdatuta hartu eta negozioaren titular direnak
- Laguntzaren xedea: Eskoriatzan tokiko merkataritza eta kontsumoa indartzea eta mantentzea.

2026ko aurrekontuak, 01004714310001 partidan, behar besteko aurrekontua jasotzen du Plan Estrategikoan aurreikusitako dirulaguntza lerro hori emateko.

Era berean, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 17.2 artikulua betez, Eskoriatzako Udalak dirulaguntzak emateko erregimena arautzeko ordenantza orokorra onartu zuen eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu 2021eko maiatzaren 10ean (85. zenbakia).

Dirulaguntzak emateko erregimena arautzeko udal ordenantza orokorraren 15. artikulua ezartzen du dirulaguntzak norgehiagoka-araubidean emateko prozedura ofizioz hasiko dela, organo eskudunak, dagokion batzorde informatzaileak aurrez diktamena emanda, onartutako deialdi publikoaren bidez, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Dirulaguntzen Datu-base Nazionalean argitaratuko dela.

Aurrez esandako guztiarengatik, Lurralde eta garapen ekonomiko jasagarria Batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 21.1.s artikuluari dagokionez Dirulaguntzak emateko erregimena arautzeko udal ordenantza orokorraren 15. artikuluan ezarritakoa betez, Alkate naizen honek, honako hau

ERABAKI DUT:

Lehenengoa: Ondorengo dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak onartzea (honekin batera doaz eranskin gisa): Merkataritza edo zerbitzu arloko establezimendu berriak irekitzeko edo negozio bat eskualdatzeko dirulaguntzak (2026).

Bigarrena: Dirulaguntza horietarako deialdia egitea, iragarkia argitaratuta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean eta Udalaren webgunean.

Hirugarrena: 3.500€-ko gastua baimentzea indarrean dagoen aurrekontuko 01004714310001 aurrekontu aplikazioaren kargura.

ALKATEA



ERANSKINA
OINARRIAK



MERKATARITZA, OSTALARITZA EDO ZERBITZU ARLOKO ESTABLEZIMENDU BERRIAK IREKITZEKO EDO NEGOZIO BAT ESKUALDATZEKO DIRULAGUNTZAK ARAUTZEKO OINARRIAK

Udalak hainbat lan ardatz nagusi aurreikusten ditu Eskoriatzan merkataritza zein ostalaritza eta kontsumoa indarberritzeko. Bestek beste, merkataritza eta ostalaritza dinamizatzeko, bezeroak fidelizatzeko eta negozioen lehiakortasuna sendotzeko.

Udaleko hirigune osoaren beheko solairuetan etxebizitzak, garajeak, merkataritza eta ostalaritza lokalak batera egoteak denden eta tabernen sakabanaketa dakar, eta horrek sektorea garatzen lagunduko lukeen merkataritza dentsitate handiagoko ardatz edo gune bat izatea zailtzen du. Egoera hori are larriagoa da lokal hutsak daudelako, horietako asko inolako erabilerarik gabe denbora askotik.

Testuinguru horretan, Udalak duela urte batzuk etxabe hutsak merkataritza eta ostalaritza jarduerarako berreskuratzeko ahaleginari ekin zion, eta etxabe horietan establezimendu berriak irekitzeko urtero laguntza programa bat martxan jartzen du.

Bestalde, negozio berriak irekitzeak bezain besteko garrantzia dauka daudenak mantentzeak. Udalak eragin nahi du daudenak itxi ez daitezen, negozioen eskualdaketa ere lagunduz. Beraz, dirulaguntza lerro honekin bi jarduerak lagundu nahi dira, batetik merkataritza, ostalaritza edo zerbitzu alorreko establezimendu berriak irekitzea eta bestetik, dauden negozioak martxan mantentzeko eskualdaketak laguntzea.

ATARIKOA

1. Helburua.

2023ko abenduaren 21ean, Eskoriatzako Udalaren 2024-2027 Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartu zen (2024ko otsailaren 28ko 42. GAO). Plan horretan ildo estrategikoak jasotzen dira, eta horietako 7. zenbakia Sustapen Ekonomikoa eta Soziala izenekoa da.

Lerro honen A) Programan jasotzen dira merkataritza eta ostalaritza sustatzeko dirulaguntzak. Helburua honako hau da: merkataritza, ostalaritza edo zerbitzu arloko establezimendu berriak irekitzeko lokalak alokatzeko edo erosteko dirulaguntzak ematea.

XEDAPEN OROKORRAK

2. Araudi aplikagarria.

Oinarri hauek eta dirulaguntzak ematerakoan indarrean dauden gainerako arauak arautuko dituzte dirulaguntza hauek eta baita onuradunaren eta erakunde emailearen arteko harreman juridikoa ere.

Oinarri hauetan aurreikusi gabekoetarako honako hauek aplikatuko dira:

- Eskoriatzako Udalak dirulaguntzak emateko erregimena arautzen duen Ordenantza Orokorra (Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 85. zenbakia, 2021eko maiatzaren 10a).



- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidea-arena.
- Diru laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra (Estatuko Aldizkari Ofizia- la: 2003-11-18) eta lege hori garatzeko uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaz onartutako Dirulaguntzei buruzko Erregelamendu orokorra.
- Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legea, eta, zehazki, 17.25 arti- kulua, honako hau jasotzen duena udalerrien eskumen propioztat: "Tokiko ekonomia- eta gizarte-garapena eta tokiko enplegu-politikak edo -planak".
- Diru laguntzei buruzko Eskoriatzako Udalaren 2024-2027 Plan Estrategikoa (2024ko ot- sailaren 28ko 42. GAO).
- -Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzko 1/2016 Legea.
- Martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik gabe Bizitzeko Legearen testu bateginaren 23. artikulua.
- Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzko 179/2019 Dekretua.

3. Organo eskuduna.

Oinarri hauek onartzeko organo eskuduna Alkatea da (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.e artikuluan aurreikusitakoaren arabera).

4. Diru izendapena.

Aurrekontu esleipena hiru mila eta bostehun eurokoa (3.500,00 €) izango da eta 2026rako honako aurrekontu-aplikazioaren kargura finantzatuko da: 0100.471.431.00.01.

Eskaerak aurrekontu kontsignazioa dagoen bitartean erabakiko dira.

5. Diruz lagungarri izan daitezkeen gastu kontzeptuak.

Merkataritza, ostalaritza edo zerbitzu arloko establezimendu berriak irekitzeko edo eskuz aldatzeko lokala erostegatik edo alokatzeegatik sortutako gastuak:

- Lokalaren salerosketa gastuak (izapidetzeak ekar ditzakeen notariotza, gestoria edo erregistro gastuak barne).
- Lokala alokairuan hartzeko ordaintzen den errenta-gastua.

6. Onuradunak.

Dirulaguntzaren onuradun izango dira merkataritza, ostalaritza edo zerbitzu establezimendu berri bat ireki edo negozio bat eskuz aldatzeko lokalak alokatu edo erosiko duten pertsona fisiko edo juridikoak, oinarri hauetan ezartzen diren baldintzak betetzen badituzte.

7. Dirulaguntzaren ezaugarriak.

Merkataritza-lokalak alokatzeko edo erosteko dirulaguntzen ezaugarriak hauek izango dira:

- a) Ezin izango da dirulaguntza handitzea edo berrikustea eskatu.
- b) Borondatezkoak eta aldi baterakoak izatea.



- c) Aurrekari gisa ezin aipatzea.

8. Onuradunek izateko baldintzak.

Merkataritza, ostalaritza edo zerbitzu arloko establezimendu berriak irekitzeko edo eskualdatzeko dirulaguntzak jasotzeko aukera izango dute ondoren zehazten diren baldintzak betetzen dituztenak:

1. Pertsona fisikoa izatea, adinez nagusia eta jarduteko gaitasun osoarekin, edo pertsona juridiko pribatua izatea, eratu eta behar bezala inskribatuta dagokion erregistroan eskaera aurkezteko eguna baino lehen, eta egoitza soziala Eskoriatzan izatea.
2. 2025eko azaroaren 1etik aurrera merkataritza, ostalaritza edo zerbitzu proiektu baten sustatzaile berria izatea (bai proiektu berrietan, baita eskualdatzeetan ere) Eskoriatzan.
3. Proiektu hori lokal pribatu batean garatzea.
4. Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.
5. Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emanda egotea proiektuari dagokion epigrafean.
6. Dirulaguntzak jasotzeko debekuetatik bat bera ere ez izatea, azaroaren 17ko 38/2008 Legeko 13. artikuluko 2. eta 3. ataletan ezarritakoaren arabera.
7. Merkataritza-, ostalaritza- edo zerbitzu-proiektu berriak direnean, Debagoieneko Garapen Agentziak onartutako bideragarritasun-plan bat izan beharko dute, jardueraren garapenean sortzen diren gastuen zerrendarekin.

Interesduna ez dago Debagoieneko Garapen Agentziarekin bideragarritasun-plana egitera behartuta, baina agenzia bera arduratuko da dokumentuari oniritzia emateaz.

8. Lokalek eta jarduerak ondorengo baldintzak bete beharko dituzte:
 - a) Lokalak zein bertan egingo den jarduerak indarrean dagoen legedia bete beharko dute eta martxan jartzeko beharrezko diren tramiteak eginda izan beharko dituzte Udalean (udal lizentzia lortzea edo aurretiazko jakinarazpena eginda izatea). Katastroan ere lokalaren erabilera eguneratuta egon beharko da, hau da, lokal komertziala izan behar da.
 - b) Merkataritza, ostalaritza edo zerbitzu jarduera bat egin beharko da lokalean.
 - c) Lokala pribatua izan eta Eskoriatzan kokatuta egon beharko da.
 - d) Jarduerak sustatzaile berri bat izan beharko du.
 - e) Euskararen erabilera: herritarrei zuzendutako informazio idatzia (kanpoko errotulua, prezioak, kartelak, eskaintzak, menuak, kartak, arbeletako oharrak, ...) gutxienez euskaraz idatzita egon beharko da. Ele bietan idatziz gero, euskarari emango zaio lehentasuna (hurrenkeran, tamainan...).

Halaber, diruz lagundutako jarduera dela-eta herritarrekin sortzen diren ahozko harremanetan, lehen hitza beti euskaraz egingo da, eta posible den guztietan, baita jarraitu ere, herritarrak hala aukeratuz gero.



Hori guztia betetzeko Eskoriatzako Udal euskara zerbitzuak eskaintzen duen itzulpen/zuzenketa zerbitzua erabili ahal izango da.

Lokalak edo jarduerak aipatutako baldintzak betetzen ez baditu, lekualdaketa dela ulertuko da, eta dauden negozioen lekualdaketak laguntza hauen aplikazio-eremutik kanpo geratzen dira.

9. Eskaerak aurkezteko moduak

Eskaerak sinatuta, eredu normalizatuaren arabera eta dagokien dokumentazioarekin batera aurkeztu beharko dira.

Pertsona fisikoek eskaera modu presentzialean edo telematikoan aurkeztu ahal izango dute. Pertsona juridikoek, berriz, 39/2015 Legearen 14. artikuluan xedatutakoaren arabera, administrazio publikoekin harremanak bitarteko elektronikoen bitartez izateko betebeharra dute. Hori horrela, telematikoki egin beharko dute eskaera.

Modu presentzialean astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 13:30era udaletxeko H@ZI zerbitzuan.

Modu telematikoan eguneko 24 ordutan, asteko 7 egunetan, Eskoriatzako Udalaren egoitza elektronikoaren (www.eskoriatza.eus) "Tramiteak" atalean. (<https://labur.eus/R9fsY>)

Eskaerak aurkezteko epea iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunetik aurrera 2026ko urriaren 20ra arte barne.

10. Aurkeztu beharreko agiriak

Interesdunek laguntzak eskatzeko aurkeztu beharreko dokumentazioa:

1. Dirulaguntza eskaera orria. Orrian bertan aitortu beharko ditu honako hauek (onartu ezean, horiei buruzko dokumentazio espezifikoak aurkeztu beharko du):
 - Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela.
 - Ez duela hasita edo tramitean administrazioari dirua itzultzeko inolako prozedurarik.
 - Ez duela jarduera bererako beste dirulaguntzarik eskatu. Eskatu badu, horri buruzko dokumentazio espezifikoak aurkeztu beharko da-
 - Ez duela sexu-diskriminazioagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan indarrean dagoen eta aplikatu beharrekoa den araudia urratzeagatik administrazio-zigorrik, ez zigor penalik.
 - Bere xede edo helburuak ez direla emakumeen eta gizonen aukera-berdintasuneko printzipioaren kontrakoak.
 - Ez duela dirulaguntzen buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13.2 eta 13.3 ataletan jasotako debekurik (Estatuko Boletín Ofiziala 2023ko azaroaren 18koa).
2. Eskaera orriarekin batera honako agiriak aurkeztu beharko dira:
 - a) Enpresa pertsona juridikoa baldin bada: eratze edo aldaketa eskritura (merkataritza-erregistroko inskripzioaren arabera) eta identifikazio fiskaleko zenbakiaren kopia.



Horiekin batera, enpresaren izenean eskaera egiten duen pertsona fisikoaren aldeko notario-ahalordearen kopia.

- b) Proiektua azaltzeko txostena.
- c) Proiektua berria baldin bada, ideiarene bideragarritasun plana, Debagoieneko Garapen Ekonomikorako Agentziak onartua.
- d) Jarduera egin nahi den lokalaren alokairu kontratuaren edo salerosketa kontratuaren kopia. Kontratu horien ordean lokalaren jabearen zinpeko aitortpena aurkeztu ahal izango da. Bertan, eskatzaileak dirulaguntza lortuz gero lokala alokatzeko edo saltzeko konpromisoa jaso beharko da, eta adierazi beharko da lokala non dagoen, alokairuaren prezioa (edo, hala badagokio, salerosketarena) eta kontratuaren indarraldia.
- e) Informazio grafikoa (prezioen, kartelen, eskaintzen, menuen, oharren... argazkiak), lokaletan eta jardueretan euskararen erabilera betetzen dela ziurtatzeko.
- f) 8/2021 Lege Organikoa, ekainaren 4koa, haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean osorik babesteari buruzkoa bete beharko da, eta ondorioz, adin txikikoekin ekintzak edo jarduerak modu jarraian egiten dituztenek kasuetan Sexu Delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiri negatiboa aurkeztu beharko dute. Ziurtagiri horrek gehienez 6 hilabeteko antzintasuna izan beharko du.

Eskoriatzako Udalak zuzenean ziurtatuko du lokalak zein bertan egin beharreko jarduerak udal lizentzia duela edo bere kasuan, aurretiazko jakinarazpena eginda dagoela eta bat datorrela indarrean dagoen legediarekin.

Eskaera aurkezteak eskatzaileak oinarri hauetan ezarritako baldintzak osorik onartzea dakar.

11. Akats zuzenketa

Eskabidean edo harekin batera aurkeztutako nahitaezko dokumentazioan akatsen bat badago edo osorik ez badago, hamar eguneko epea emango zaie interesdunei, udalak errekerimendua jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, antzemandako akatsak zuzen ditzaten.

Emandako epean akatsak zuzendu ez badira, dirulaguntzarako eskabidean atzera egin duela ulertuko da, horretarako emandako ebazpenaren bidez, eta eskaera artxibatu egingo da beste izapiderik egin gabe.

12. Prozedura eta erabakia.

Eskaerak sarrera hurrenkeraren arabera tramitatu eta erabakiko dira horretarako aurrekontu kreditua dagoen artean.

Eskaera aurkeztuta, Garapen Ekonomikorako arloko teknikariak aztertuko du; eta dokumenturen bat falta izanez gero, 10 eguneko epea emango da hori aurkezteko.

Epe hori amaituta eskatutako dokumentazioa aurkeztu gabe, dirulaguntza eskaerari uko egiten zaiola ulertuko da.

Eskatutako dokumentazio guztia aurkeztutakoan, jasotako eskaerak aztertuko ditu Garapen Ekonomikorako batzorde informatzaileak oinarri hauetan ezarritako ebaluazio irizpideen arabera, eta dirulaguntza emateko proposamena egingo du.



Dirulaguntza emateko proposamena jakinarazita pertsona fisiko edo juridikoari, horrek ondorengo dokumentazioa aurkeztu beharko du 2 hilabeteko epean dirulaguntza emateko proposamena jaso eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita:

- Alokairu kontratuaren edo salerosketa eskritura publikoaren kopia konpultsatua.
- Sustatzailea eta langileak Gizarte Segurantzaren alta emanda egotearen agiria.

Ezarritako epean ez bada eskatutako dokumentazio guztia aurkeztu, ez zaio dirulaguntza emateko proposamenik aurkeztuko organo eskudunari dagokion erabakia har dezan.

Dokumentazio hori jasota, garapen ekonomikorako arloko teknikariak aztertuko du, eta derrigorrezko txostena egingo du.

Txosten hori organo eskudunari emango zaio dagokion erabakia har dezan.

Erabakia gehienez ere sei hilabeteko epean hartuko da Udal Erregistroan eskaerari emandako sarrera egunetik kontaktzen hasita.

Epe hori amaituta, eta Udalak ez badu inolako erabakirik hartu eskaeraren baten gainean, eskaera ez dela onartu ulertu beharko da.

Erabaki proposamena egin aurretik, Udalak, batzorde informatzailearen bidez, beharrezkotzat jotzen duen informazio osagarria eskatu ahal izango du.

13. Publizitatea

Emandako dirulaguntza guztien publizitatea egingo du udalak, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 18. artikuluan xedatzen denez.

14. Onuradunaren obligazioak

Dirulaguntza emanez gero, oinarri hauetan jasotakoez gain, honako hauek ere onuradunaren betebeharrak izango dira:

- a) Dirulaguntza ematea oinarritu duen helburua betetzea, proiektua betearaztea, ekintza gauzatzea edo jokabidea hartzea.
- b) Dirulaguntza eman duen organoari honako hauek justifikatzea: betebeharrak eta baldintzak bete izana, ekintza gauzatu izana eta dirulaguntza jaso edo erabiltzearen helburua bete izana.
- c) Dirulaguntza ematen duen organoak eta eskuduntza izendaturik duten estatuko nahiz erkidegoko kontrol-organoei egin ditzaketan egiaztatze-jardunak eta finantza-kontrolak onartzea; bai eta aurreko jardunak burutzeko errekeritutako informazioa ematea ere.
- d) Dirulaguntza eman duen organoari jakinaraztea diruz lagundutako ekintzak finantzatzen dituzten beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo bitarteko batzuk lortu izana. Jakinarazpena, horien berri izan eta berehala egin beharko da, eta, edozelan ere, fondoei emandako erabilpena justifikatu baino lehen.



- e) Ogasunekiko betebeharreran eta Gizarte Segurantzakoetan egunean egotea.
- f) Eskoriatzako Udalarekin ez izatea inolako zorrik, eta egunean egotea betebeharr fiskaletan eta zergen, tasa eta prezio publikoen ordainetan. Eskoriatzako udalak ofizioz egiaztatuko du ea pertsona edo entitate eskatzailea erakunde honekiko egunean dagoen.
- g) Jasotako fondoak zertan erabili diren egiaztatzeko dokumentuak gordetzea, gutxienez sei urtez, bai eta dokumentu elektronikoak ere, egiaztatze eta kontrol jardunak burutu daitezten.
- h) Jasotako fondoak itzultzea oinarri hauetan aurreikusitako kasuetan edota indarrean dagoen gainontzeko legediak jasotzen dituen kasuetan.
- i) Diruz lagundutako jarduera garatzeko behar beste baimen lortzea, eta baimenon xedapenak betetzea.
- j) Jardueraren garapenari buruzko informazioa ematea, udalak jarraipena egin edo laguntzeko.
- k) Dirulaguntza emateko kontuan hartu den edozein gorabehera aldatuz gero, dirulaguntza eman duen organoari jakinaraztea.
- l) Martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik gabe Bizitzeko Legearen testu bateginaren 23. artikuluan ezarritakoaren arabera, dirulaguntza jasotzen duten erakundeek hizkera ez-sexista erabili beharko dute aurkezten dituzten memoria, proiektu eta gainerako testuetan. Era berean, genero-estereotipoak errepikatzea saihestu beharko da, eta emakumeen eta gizonen berdintasuna aktiboki sustatu, egiten diren irudi, komunikazio, argitalpen, programa, ikastaro eta abarretan.
- m) Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gainerako Arreta Integralari buruzko 1/2016, Legean ezarritako neurriak betez, edari alkoholduen eta tabakoaren publizitatea, sustapena, hornidura, salmenta eta kontsumoa mugatu beharko da, bereziki adingabeei zuzendutako jarduerak direnena”.
- n) Euskararen erabilerari dagozkion baldintzak betetzen direla egiaztatzeko egingo diren bisitak onartzea.

15. Eskabideak baloratzeko irizpideak.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 22.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, oinarri hauetako laguntzak ebaluazio bakoiztu erregimenean emango dira, Eskoriatzan, inor baztertu gabe, merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuak orohar sustatu eta dinamizatu gura duten laguntza hauek izaera berezia baitute.

Oinarri hauetan ezarritako baldintzak betetzen dituzten eskaera guztiei emango zaie dirulaguntza, betiere eskaera-dataren arabera, eta aurrekontu-kontsignaziorik baldin badago. Hau da, eskaerak aurkeztu ahala hartuko da horiei buruzko erabakia, harik eta horretarako dagoen aurrekontu-kontsignazioa agortu arte.

16. Diruz laguntzeko gastu-kontzeptuak eta gehieneko diru-izendapenak.

Oinarrietako baldintza guztiak betetzen dituztelako onartutako eskaeren artean, kreditua agortu bitartean, ondoren ezartzen diren ezaugarrien arabera emango dira dirulaguntzak:



a) Lokala alokatzeko:

Laguntza hauek gehienez 24 hilabeteko alokairuak ordaintzeko izango dira.

- Lehenengo urtean: alokairu-kostuaren % 50 onartuko du Udalak eta gehienez 200 € hileko.
- Bigarren urtean: alokairu-kostuaren % 40 onartuko du Udalak eta gehienez 100 € hileko.

b) Lokala erosteko:

- Katastro-balioaren % 4a, eta gehienez, 3.500 €.

BEZa ez da diruz lagunduko.

Dirulaguntzak ezingo du inolaz ere gainditu egiaztatutako gastuaren % 100a.

17. Bateragarritasuna beste dirulaguntza batzuekin.

Udalak emandako dirulaguntza bateragarria izango da helburu bererako emandako beste edozeinek.

Hala ere, dirulaguntza ezingo da izan bera bakarrik edo beste laguntza batzuekin batera, diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa.

18. Dirulaguntza ordaintzeko modua.

- Alokatzeko dirulaguntzak:

Dirulaguntza onartuta, jabeari alokairua ordaindu zaiola egiaztatzeko dokumentuak aurkeztu ondoren ordainduko da lehen hiru hilabeteko dirulaguntza. Ondorengo dirulaguntzak hiru hilero ordainduko dira, hiruhileko bakoitzari dagokion alokairua ordaindu dela egiaztatzeko dokumentuak aurkeztu eta gero, eta zerga betebeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak eta Eskoriatzako Udalarekikoak egunean dituela egiaztatu ondoren. Halaber, horiekin batera, euskararen erabilera bermatzen dela ziurtatzeko informazio grafikoa aurkeztu beharko da (argazkiak). Eskaera urteko azkenengo hiruhilekoan egiten bada, abenduan ordainduko da, urteari dagokion zati proportzionala.

Eskatzaileak emandako kontu korrontean egingo da ordainketa, gehienez ere hilabeteko epean dokumentazio osoa aurkezten denetik kontaktzen hasita.

- Lokala erosteko dirulaguntzak:

Eskatzaileak salerosketa prezioa ordaindu duela egiaztatzeko dokumentua aurkeztu ondoren ordainduko da dirulaguntza.

Eskatzaileak emandako kontu korrontean egingo da ordainketa, gehienez ere hilabeteko epean dokumentazio osoa aurkezten denetik kontaktzen hasita.

Aurkeztutako likidazioa hasierako gastu-aurrekontua baino txikiagoa bada, dirulaguntza gutxitu egingo da koefiziente zuzentzaile bat aplikatuz. Koefiziente hori benetan erabilitako kopuruaren portzentajea izango da, hasieran eskatu eta onartutako kopuruarekiko.



19. Dirulaguntzaren justifikazioa

Dirulaguntzaren justifikazioa egin beharko da telematikoki edo presentzialki Eskoriatzako H@ZI zerbitzuan.

- Alokatzeko dirulaguntzak justifikatzeko, dirulaguntza eskaera inprimakiarekin batera, lokalaren saltzaileari alokairua ordaindu zaiola egiaztatzeko dokumentuak aurkeztuko dira, hiru hileroko, onartutako dirulaguntza bukatu arte. Dirulaguntza urteko azken hiru hilabetean onartzen denean izan ezik. Kasu horretan, lehenengo ordainketa abenduan egingo da, eta dagokion zati proportzionala ordainduko zaio.

Dokumentu horiekin batera, euskararen erabilera bermatzen dela ziurtatzeko informazio grafikoa aurkeztu beharko da (argazkiak).

- Lokala erosteko dirulaguntzak justifikatzeko lokalaren jabeari salerosketa prezioa ordaindu zaiola egiaztatzeko dokumentua aurkeztu beharko da.

20. Obligazioak ez betetzea, itzulketa kasuak.

1. Dirulaguntzen 38/2003 Legearen 36. artikuluan xedatutakoez gain, dirulaguntza emateko erabakiaren deuseztasun nahiz deuseztagarritasun kasuetan, bidezkoa izango da jasotako dirua itzularaztea eta berandutza-interesa eskatzea (dirulaguntza edo laguntza ordaindu den unetik aurrerakoa), ondorengo egoeraren bat gertatuz gero:

- a) Jasotako fondoak zertarako erabili diren justifikatzeko obligazioa ez betetzea, edo behar beste ez justifikatzea, ezarritako eran eta epeetan.
- b) Dirulaguntza eskuratu izana horretarako eskatutako baldintzak faltatuz, edo dirulaguntza jasotzea galaraziko zuketen baldintzak ezkutatuz.
- c) Dirulaguntza ematerakoan onuradunei ezarritako baldintzak ez betetzea. Dirulaguntza emateko oinarri den xedea ez betetzea, osoki edo zati batean.

Horri dagokionez, eta udalak berariaz besterik erabaki ezean, dirulaguntza ematerakoan onartu ziren jarduera edo programen %50 baino gutxiago gauzatu izana bete gabeko jarduera edo programatzat joko da.

- d) Organo eskudunen kontrol-jarduerari uko egitea edo oztopoak jartzea.
- e) Zabalkunde-neurriak hartzeko betebeharra betetzen ez bada.
- f) Finantzak egiaztatzeko eta kontrolatzeko jarduerari aurka egiten bazaie, aitzakiak nahiz oztopoak jartzen bazaizkie edo uko egiten bazaie, edota kontabilitate-, erregistro- nahiz kontserbazio-betebeharrak betetzen ez badira eta, horren ondorioz, ezin bada egiaztatu jasotako funtsei zein erabilera eman zaien edo dirulaguntzaren helburua bete den.
- g) Administrazioak onuradunei ezarritako betebeharrak eta horiek hartutako konpromisoak betetzen ez badira.

2. Diru-itzulketak udalak zehaztutako epeetan egin ezean, itzuli beharreko kopuruak premia-mendu bidez ordainarazi daitezke.

21.- Dirua itzultzeko prozedura.



1. Diru-laguntza eman zuen organoak berak izango du eskumena jaso den zenbatekoaren itzulketa -osorik edo zati batean- exijitzeko erabakia hartzeko.
2. Diru-laguntza itzultzeko prozedurari ofizioz ekingo zaio organo eskudunak horrela erabakita, hura izapidetzeko administrazio-atal arduradunak txostena egin eta gero, edota alderdiren batek eskatuta edo salatuta.
3. Nolanahi ere, prozedura izapidetzerakoan pertsona edo erakunde interesdunen entzunaldi-eskubidea bermatu beharko da.
4. Emandako diru-laguntza guztiz edo aldeez ez dela behar bezala erabiltzen egiaztatutakoan, organo eskudunak ziodun ebazpena emango du, argiro adierazita onuradunak zergatik itzuli behar duen dirua nahitaez, itzuli beharreko zenbatekoa eta horretarako epea eta modua. Era berean, ohartaraziko zaio dirua xedaturiko epean itzuli ezean premiamenduzko bidez kobratzeari ekingo diola Udalak.
5. Itzultzeko prozedurari administrazio-arauren bat urra dezakeen zerbaitengatik ekiten bazaio, horren jakitun jarriko da organo eskuduna dagokion zigor-prozedurari ekiteko.
6. Itzultzeko prozedura pertsona fisikoen edo juridikoen kontra zuzenduko da, edo nortasun juridikoa ez daukaten pertsona fisiko edo juridikoen taldeetako kideen (dirulaguntzaren eskatzaile edo onuradun agertzen direnen) kontra.
7. Dirulaguntza –gehi dagozkion berandutze interesak- itzultzeko obligazioaren erantzukizun solidarioa, edo hala badagokio, subsidiarioa, erabakitzeko Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 40. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio.

22. Datu pertsonalen tratamendua

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorra aplikatuz, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Legearen Zortzigarren Xedapen Gehigarria aplikatuz eta, oro har, 39/2015 Legearen 28. artikuluan jasotako aurreikuspena aplikatuz, dirulaguntza hauek kudeatzeko ez da beharrezkoa izango interesdunaren baimena, eta udalak bere eskumenak erabiliz datuen zehaztasuna egiaztatzeko behar beste egiaztapen egin ahal izango du, bai eta bere esku dauden edo beste edozein administrazioi egin dituen dokumentuak kontsultatu eta eskuratu ere.

Baldintzak edo betebeharrak betetzen direla egiaztatzeko, Eskoriatzako Udalak honako kontsulta hauek egingo dizkie beste administrazio batzuei:

— Interesduna Foru Ogasunarekiko zerga-betebeharrak beteta ote dituen. Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak ere beteta ote dituen.

Interesdunak era arrazoituan bere datuak kontsultatzearen aurka egiten badu, dirulaguntza izapidetu ahal izateko behar den dokumentazio guztia aurkeztu beharko du.

23. Dirulaguntzak argitaratzea.

Dirulaguntza, banaka hartuta, 3.000 eurokoa edo 3.000 eurotik gorakoa baldin bada, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira onuradunaren izena eta emandako dirulaguntza.

Ez da diru laguntzen daturik argitaratuko, dirulaguntzaren xedeagatik, pertsona onuradunaren datuak argitaratzeak pertsona fisikoen ohorea eta intimitate pertsonal zein familiarra ez errespetatzea edo ez babestea ekar dezakeenean.



24. Oinarriak interpretatzea.

Oinarriak interpretatzerakoan eta garatzerakoan sor daitezkeen zalantzak Garapen Ekonomiko Jasangarriko batzordeak erabakiko ditu.

25. Oinarri hauen aurkako errekurtsua.

Oinarri hauen aurka berraztertzeko errekurtsua jarri dakioko oinarriak onartu dituen organo eskudunari. Horretarako hilabeteko epea izango da. Bestela, zuzenean inpugnatu daitezke Administrazioarekiko Auzitegian, eta horretarako bi hilabeteko epea izango da. Epe biak oinarri hauek GAO on argitaratzen diren biharamunean hasiko dira kontatzen.



2026MDID0001

Ayudas para la adquisición y alquiler de locales comerciales 2026

BASES REGULADORAS DE LAS SUBVENCIONES PARA LA APERTURA DE NUEVOS ESTABLECIMIENTOS COMERCIALES O DE SERVICIOS O PARA LA TRANSMISIÓN DE UN NEGOCIO

El Ayuntamiento prevé varios ejes principales de trabajo para revitalizar tanto el comercio y la hostelería como el consumo en Eskoriatza con el objetivo de dinamizar el comercio y la hostelería, fidelizar a la clientela y consolidar la competitividad de los negocios.

La coexistencia de viviendas, garajes y locales de hostelería y comerciales en las plantas bajas de todo el casco urbano del municipio supone una dispersión de comercios que dificulta la existencia de un eje o zona de mayor densidad comercial que ayudaría al desarrollo del sector. Esta situación se agrava por la existencia de locales vacíos, muchos de ellos sin uso alguno desde hace mucho tiempo.

En este contexto, el Ayuntamiento inició hace años un esfuerzo por recuperar los bajos vacíos para la actividad comercial y hostelera y cada año pone en marcha un programa de ayudas para la apertura de nuevos establecimientos en estos bajos.

Por otra parte, es tan importante mantener los existentes como abrir nuevos negocios. El Ayuntamiento quiere incidir para que no se cierren los existentes, apoyando también el traspaso de negocios. Por lo tanto, con esta línea de subvenciones se pretende apoyar las dos actuaciones, por un lado, la apertura de nuevos establecimientos comerciales, hosteleros o de servicios y por otro, apoyar los traspasos para mantener en marcha los negocios existentes.

PREÁMBULO

1. Objetivo.

El 21 de diciembre de 2023 se aprobó el Plan Estratégico de Subvenciones 2024-2027 del Ayuntamiento de Eskoriatza (BOG 42, de 28 febrero de 2024). En este plan se recogen las líneas estratégicas, de las cuales la número 7 es Promoción Económica y Social.

El programa A) de esta línea recoge las ayudas económicas para la promoción del comercio y la hostelería, cuyo objetivo es subvencionar el alquiler o adquisición de locales para la apertura de nuevos establecimientos comerciales, hosteleros o de servicios.

DISPOSICIONES DE CARÁCTER GENERAL

2. Normativa aplicable.

Estas subvenciones se regirán por las presentes bases y demás normativa vigente en el momento de su concesión, así como por la relación jurídica entre el beneficiario y la entidad concedente.



En lo no previsto en estas bases serán de aplicación:

- Ordenanza general reguladora del régimen de concesión de subvenciones del Ayuntamiento de Eskoriatza (Boletín Oficial de Gipuzkoa nº 85, de 10 de mayo de 2021).
- Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.
- Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones (BOE 18-11-2003) y Reglamento General de Subvenciones, aprobado por Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, en desarrollo de la misma.
- La Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi, y en concreto su artículo 17.25, que recoge como competencia propia de los municipios el "Desarrollo local económico y social y políticas o planes locales de empleo".
- Plan Estratégico 2024-2027 de subvenciones del Ayuntamiento de Eskoriatza (BOG 42, de 28 de febrero de 2024).
- Ley 1/2016 de Atención Integral de Adicciones y Drogodependencias.
- Artículo 23 del texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y para una Vida libre de Violencia Machista contra las Mujeres, aprobado por Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo.
- Decreto 179/2019, sobre normalización del uso institucional y administrativo de las lenguas oficiales en las instituciones locales de Euskadi.

3. Órgano competente.

El órgano competente para la aprobación de las presentes bases es el Alcalde (de conformidad con lo dispuesto en el artículo 22.2 e) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local).

4. Asignación económica.

La consignación presupuestaria será de tres mil quinientos euros (3.500,00 €) y se financiará con cargo a la aplicación presupuestaria 0100.471.431.00.01 para el año 2026.

Las solicitudes se resolverán mientras haya consignación presupuestaria.

5. Conceptos subvencionables

Gastos de adquisición o alquiler de local para la apertura o transmisión de nuevos establecimientos comerciales, de hostelería o de servicios:

- Gastos de compraventa del local (incluyendo los gastos notariales, de gestoría o de registro que puedan derivarse de su tramitación).
- Gasto de renta que se paga para el alquiler del local.

6. Personas beneficiarias.



Serán beneficiarias de la subvención las personas físicas o jurídicas que, cumpliendo los requisitos establecidos en estas bases, vayan a alquilar o adquirir locales para la apertura de un nuevo establecimiento comercial, de hostelería o de servicios o vayan a transmitir un negocio.

7. Características de las subvenciones.

Las subvenciones para el alquiler o adquisición de locales comerciales se caracterizarán por:

- a) No poder solicitar incremento ni revisión de la subvención.
- b) Ser de carácter voluntario y temporal.
- c) No poder citarse como antecedentes.

8. Requisitos para ser persona beneficiaria de las subvenciones.

Podrán optar a la concesión de subvenciones para la apertura de nuevos establecimientos comerciales, de hostelería o de servicios o para la transmisión de establecimientos comerciales o de servicios las personas que cumplan las siguientes condiciones:

1. Ser persona física, mayor de edad y con plena capacidad de obrar, o ser persona jurídica privada, constituida y debidamente inscrita en el registro correspondiente con anterioridad a la fecha de presentación de la solicitud, y tener su domicilio social en Eskoriatza.
2. Promover un proyecto comercial, de hostelería o de servicios a partir del 1 de noviembre de 2025, tanto en nuevos proyectos como en traspasos, en Eskoriatza.
3. Desarrollar dicho proyecto en un local privado.
4. Hallarse al corriente de sus obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social.
5. Estar dadas de alta en el Impuesto de Actividades Económicas en el epígrafe correspondiente al proyecto.
6. No hallarse incurso en ninguna de las prohibiciones para obtener subvenciones establecidas en los apartados 2 y 3 del artículo 13 de la Ley 38/2008, de 17 de noviembre.
7. Cuando se trate de nuevos proyectos comerciales, hosteleros o de servicios, deberán contar con un plan de viabilidad aprobado por la Agencia Desarrollo de Debagoiena, con la relación de gastos que se generen en el desarrollo de la actividad.

Si bien la persona interesada no está obligada a realizar el estudio de viabilidad con la Agencia Desarrollo de Debagoiena, será ésta la responsable de dar el visto bueno al documento.

8. Los locales y actividades deberán cumplir las siguientes condiciones:
